

IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Hirubide BHI



2023-05-19

Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
Ikastetxearen testuingurua.....	3
Azpiegiturak.....	4
Azpiegitura fisikoa:.....	4
Konektibitatea:.....	5
Plataformak:.....	5
Proiektuaren justifikazioa.....	7
Elaborazio prozesua eta lan-taldea.....	8
Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena.....	9
2. Ikastetxearen egoeraren analisia.....	11
Galdetegiaren osatze-indizeak.....	11
Arloko emaitzak.....	13
A. Lidergoa.....	13
B. Kolaborazioa eta sareak.....	14
C. Azpiegitura eta ekipamenduak.....	15
D. Etengabeko prestakuntza profesionala.....	16
E. Pedagogia: laguntzak eta baliabideak.....	17
F. Pedagogia: ikasgelan aplikatzea.....	18
G. Ebaluazio-jarduketak.....	19
H. Ikasleen konpetentzia digitalak.....	20
AMIA.....	21
Ondorioak.....	22
3. Helburuak eta ekintzak.....	23
LG Lidergoa eta gobernantza.....	23
II Irakaskuntza eta ikaskuntza.....	25
GP Garapen profesionala.....	27
EJ Ebaluazio jardunbideak.....	28
EC Edukiak eta curriculumak.....	29
EN Elkarlana eta networkinga.....	30
AZ Azpiegiturak.....	31
IB Ikastetxeko berariazkoak.....	32
4. Proiektuaren ebaluazioa.....	33



1. Sarrera

Ikastetxearen testuingurua

Hirubide Institutua Irunen dago, 65.000 biztanle inguruko hiria Iparraldeko eta Hegoaldeko mugan kokatua (Gipuzkoa eta Lapurdi artean zehazki). Hiri mugakidea izanik, biztanleria oso anitza da eta modu berean gure ikastetxea ere oso anitza da.

Gure ikastetxeak bere egitura eta kokapenarengatik urtero etorkin eta maila sozioekonomiko baxuko ikasleak jasotzen ditu kurtsoaren zehar.

Gure erronka garrantzitsuen artean, beraz, aniztasunaren arreta dago. Bigarrenik, eta oso gertutik, metodologia berriztatzaileak ezartzea ezinbesteko erronka bezala ikusten dugu. Alor horretan azkenengo urteetan lan handia egin da eta hurrengo urteetan ere metodologia berriak ikastetxearen puntu estrategikoa izango da.

Alor digitalari dagokionez ikastetxea beti egon da proiektu digitaletan murgilduta eta estuki lotua software askeko proiektuekin. Luberri sistema eragilea dago eskolako gailu guztietan, hodei propioa eta Moodle propioa ditugu eta gure web orria Wordpress sistemarekin dago eraikia.

Horrez gain, 2016 urtetik aurrera Sare Hezkuntza gelan programan parte hartu dugu eta IKTen alorreko Heldutasun digitaleko mailak lortzen joan gara 2017 urtean maila altuena lortu genuen arte.

Azpiegiturak

Hornikuntza teknologikoari dagokionez honakoak dira ditugun baliabideak eta haien egoera:

Azpiegitura fisikoa:

- **Renting-eko ordenagailu eramangarriak:** ikasle guztiek jaso dituzte aurten ordenagailu eramangarri hauek. Eskolan erabiltzen dugun softwarea erabili ahal izateko eramangarrietan eskolarako egokitutako Luberri sistema eragilea instalatu diegu. Horrez gain takiletan gordeta dituztenean kargatzen jarduteko sistema ere ezarri da.
- **Eskola 2.0 ordenagailu eramangarriak:** renting-ekoak iritsi eta gero hauekin proiektu solidario eta hezitzaileak egiteko erabil idira Elkartenet fundazioarekin batera.
- **Irakasleen ordenagailu eramangarriak:** bi modelo ditugu. Acer markakoak (gehienak) oso mantso dabilta. Hori konpontzeko SSD disko gogorrak instalatu dira eta horrela askoz hobeto dabilta. Eskolak beste bi erosi ditu (HP) behar direnerako.
- **Arbel digitalak:** ikasgela guztietan eta gela berezietan ere arbel digitalak daude. Proiektore moduan erabiltzen dira ukimen-aukera ez baitabil ongi.
- **Informatika gelak:** Gero eta gutxiago erabiltzen dira ez baitago beharrik. Martxan gela bakarra dugu orain 24 ordenagailurekin. Ondo dabilta eta eta zenbait ariketa egiteko aukera ona dira (bideo eta irudi ediziorako adibidez pantaila handia behar baita).
- **3D inprimagailuak:** Bi ditugu baina arazo ugari ematen dizkigute. Momentuan ez daude martxan
- **Laser ebakigailua:** Matxuratua. Proiektu politak egin ditugu orain arte.
- **Fotokopiagailuak:** Hiru fotokopiagailu ditugu (horietako bat koloretan). Orokorrean ez dute arazorik ematen.
- **Zerbitzaria:** Hodeia erabiltzen dugunetik gutxiago erabiltzen da. Batez ere pelikula eta bideo pisutsuak gordetzeko eta zenbait dokumentu oso pribatu gordetzeko erabiltzen da.
- **Audioa entzuteko sistema:** Eskola osoan zehar irrati eta idazkaritzatik emititutako audioa entzuteko sistema dago. Sistema programagarria da edo zuzenean emititu daiteke mikroa erabiliz. Txirrinaren funtzioa ere betetzen du.
- **Irrati grabazio gela.** Lau mikrofono, nahasketa-maila eta ordenagailua (software egokiarekin) ditu.
- **Bideo grabazio gela.** Kromak, mikroak, kamerak, tripodeak, argiak etab. dituen gela da. Bertan ordenagailu finko bi ere ezarri dira bideo ediziorako.

Konektibitatea:

- Zentroko INTERNET konexioa **WAN-aren bitartez EJE eta LAKUA**-n dauden irteera tronkaletara bideratzen da eta handik INTERNET-era ateratzen da.
- Zentroak bi gailu ditu komunikazio armairu edo rack-ean: **Router (bideratzailea) eta Fortinet.**
- **Bandaren zabalera:** Zentroak kanpotik (internet, intranet) edukiak igo ala jaisteko izango duen transferentzia-tasa maximoa da. Zentroak duen bandaren zabalera 100 Mbps-ekoa da. Ez da nahikoa hainbeste ordenagailu interneten konektaturik edukitzeko.
- **24 wifi puntu** ditugu eskolan zehar. Ikasgela gehienetan estaldura ona dago. Robotika gelan arazoak egoten dira. Gimnasioan ez dago estaldurarik.
- **Sare puntuak:** 112 gelategian, 24 eraikin nagusian eta 24 eraikin hexagonalean.

Plataformak:

- **Ikaskuntza plataforma (Moodle propioa):** egela.hirubide.eus helbidean kokatua dago. Ikastaro bat dago ikasgai eta kurtso bakoitzeko; baita “Hedatze” programako tailer eta errefortzu klase bakoitzeko ere. Bestalde, irakaslegunea ere bertan kokatzen da. Bertan, ohartarazpenak, gelen erreserba eta beste hainbat kontu kudeatzen ditugu.
- **Hodei pribatua (Nextcloud):** Hainbat lan-eremu ditu eta bertatik kudeatzen dira honako atalak. Ikasleak zein irakasleak. Eskolak alokatutako zerbitzari batean dago pribatutasuna eta ikasleen datuen babesa bermatzeko:
 - Ikastetxeko dokumentuak. Ikastetxearen funtzionamendurako dokumentuak daude bertan. Mintegika eta arduren arabera daude baimenak. Hementxe hodeian aurkitu daitezkeen dokumentuen aurkibidea. Collabora online tresnaren bidez online editatzeko aukera dago.
 - Ikastetxeko egutegiak: Zenbait egutegi partekatzen dira hemen pertsonalez gain: Azterketak, formakuntzak, irteerak...
 - Matxura informatikoak eta orokorrak: eskolan ematen diren matxura ezberdinak kudeatzeko sistema.
 - E-posta: Googleren e-posta bertatik kudeatzeko aukera dago.
 - Txatak: Irakasleen arteko txat gelak sortzeko aukera.
 - Bideodeiak: ikasle zein irakasleen arteko bideo-deiak egiteko aukera.
 - Zenbait tresna integratu edo estekatu dira: Moodle, Hezigunea.

- **Web orria (wordpress):** Wordpress tresnarekin egindako web orria da. Hainbat irakaslek berriak gehitzeko aukera dute. Kudeaketa IKT arduradunak eta berrikuntza arduradunak daramate. Eskolako informazioa orokorraz eta albisteez gain eskolako irrtiaren podcast-ak eta eskolako TBaren bideoak ikusteko aukera dago. Asteroko buletinean bidaltzen dira albistek guraso, ikasle eta irakasleei.
- **Google workspace:** Googleren tresnak erabiltzeko aukera. Hodei pribatuaz ordezkatzeara da helburua baina oraindik informazio ugariaren trasbasea egitea faltako litzateke. Emailak kudeatzeko ere Googleren zerbitzuak erabiltzen dira momentuz.
- **Hezkuntzako aplikazioak:** Oro har hutsegiteak eta notak eta faltak sartzeko erabiltzen ditugu. Motz geratzen da zenbait gauzetarako (irakaslearen koadernoak, ohartarazpenak, matxurak....)

Zerbitzu digitalak eta mantenua:

- **Hodeia:** netkam enpresarekin dugu kudeaketa. Zerbitzaria OVH enpresarekin dago alokatua.
- **Moodle eta web orria:** guebs.com euskal enpresarekin dugu mantenua eta ostatze zerbitzua. H
- **EJ-ren mantenua.** Hezkuntzak eskaintzen duen CAU zerbitzua
- **Fotokopiagailuak:** KopyLeku enpresarekin dugu mantenuaren kontratua.
- **Mantenu eta erosketak txikiak:** Anaka informatika dendan egiten ditugu erosketak txikiak eta CAUk ematen ez dizkigun mantenu zerbitzuak.
- **Domeinuak:** hirubide.eus eta hirubide.net ditugu kontratatuta. Helbide elektronikoak hirubide.net domeinupean daude baina helburua da hirubide.eus-era pasatzea.

Proiektuaren justifikazioa

Garapen hitza datorkigu burura proiektu honi buruz hitz egiten dugunean. Mundua etengabeko garapen batean badago, teknologiak esponentzialki garatzen ari direla esan dezakegu. Ezinbestekoa da gu atzean ez geratzea, egoerari egokitzea eta gure helburuetara iristeko estrategia bat diseinatzea.

Ikasleek DBH amaitzean, profil digital bat izatea ezinbestekoa izango da, lan munduari zein bizitzari aurre egiteko. Gaur egun, prozesu digitalek gure bizitzak bustitzen dituzte alderdi sozialean, familiarrean, hezkuntzan... eta hauen erabilera etiko, arduratsu, eraginkor eta euskalduna bermatzea ezinbestekoa dela uste dugu. Ikastetxeok dugun papera funtsezkoa da, eta ikastetxeko eragile guztiak, eta bereziki irakasleak, ikasleen gidari izanik, gure ezagutza maila ere egokia izatea ezinbestekoa izango da. Horregatik plan honek beste batzuen artean formakuntza izango du ardatz.

Lehen aipatu den digitalizazio etiko, arduratsu, eraginkor eta euskalduna bermatzeko eta ikasleen eskubide digitalak eta pribatutasuna errespetatzeko, bitarteko teknologiko auditagarri, berrerabilgarri, libre eta gardenak erabiltzean jarriko dugu fokua. Horretarako, epe luzerako begiradarekin diseinatu behar da gure ikastetxearen estrategia bere burua eraldatzen joan dadin, baita digitalizazioan ere.

Proiektu hau, bidai honetan lagungarria izan daitekeela uste dugu. Honen bitartez, ikastetxean ditugun baliabideen erabilera optimizatzen lagundu dezake. Egiten duguna aztertu eta urtero zenbait hobekuntza eginez, gure helburuak betetzen, moldatzen eta egokitzen joango gara.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

2022-2023 ikasturtean batez ere taldea osatu eta digitalizazio planaren analis egin eta IPDa idatziko da. Horretarako bi ostegunetik behin Digitalizazio batzordea elkartzen da:

Eskolak mentore digitala izanik bera arduratuko da batez ere plana idazteaz baina erabakiak digitalizazio batzordean hartuko dira.

Honakoak dira digitalizazio batzordearen partaideak:

- Jaso Larruskain (Zuzendaritza)
- Iñigo Gebara (Mentorea)
- Amaia Herrero (Berrikuntza arduraduna)
- Leire Gandarias (Berrikuntza arduraduna)

Datorren ikasturtetik aurrera helburuak findu eta etengabeko ebaluazio prozesuarekin jarraituko da. Lanaren hastapenean ezarritako helburu batzuei helduko zaie, digitalizazioaren etengabeko hobekuntzan .

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Ikastetxeko Urteko Planean jasotzen da Digitalizazio Batzordearen osaketa eta eginkizuna. Bertan zehaztu dira helburuak eta aurrera eramango diren ekintzak, Proiektu Digitala diseinatu eta inplementatzeko. Irakaskuntzaren planteamendu berriei eta Hezkuntza-sistemaren eskakizunei aurre egiteko beharrezkoak diren estrategiak eta baliabideak eskainiko dira gelan eta inplementatzeko pausuak jasoko dira Proiektuan; izan ere, irakaskuntza-lana garatzen den testuingurua konplexuago bihurtu da, gizartea bezala, eta horrek irakasleei gaitasun profesional berriak garatzea eskatzen die.

Horretarako, prestakuntza izango da bidelagun. Prestakuntza honen funtsezko helburua izango da berrikuntza eta curriculum-aldaketa sustatzea, irakaskuntza-hobekuntzari, irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntzari eta ikasleen ikaskuntzari lotuta.

Proiektu Digital honen baitan, ikastetxeetako ikaskuntza-irakaskuntzako eta ebaluazioko prozesuetan teknologia digitala sustatuko da. Hainbat ekintza bultzatuko dira honako arloetara bideratuta: material berriak sortzera, hezkuntza-komunitateko pertsona guztiak digitalki gaitzera, azpiegitura berriak garatzera eta ikaskuntzaren eraldaketa digitalerako praktika aurreratuak hartzera.

Teknologia digitalek hezkuntzaren arlo guztietan dute eragina eta beharizan eta aukera berriak sortzen dituzte. Hori horrela, hezkuntza-erakundeetan teknologia digitalen integrazio eraginkorra eta erabilera optimoa ahalbidetze aldera, Hezkuntza sailak 2022-2024 aldirako Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Plana onartu du eta Hiribidek bat egiten du plan honekin.

Bestalde, Ikastetxeko Proiektu Digitala ikastetxearen dokumentu estrategikoetan jaso behar da, hau da, Hirubideko zuzendaritza eta Hezkuntza Proiektuan. Bi dokumentu horietan jasotzen diren helburuak betetzeko estrategia guztien artean nahitaezkoa da Proiektu hau. Beti ere, gaur egungo gizarteak daraman bilakaerara egokituz doan Proiektua Digitala izango dela nabarmenduz.



2. Ikastetxearen egoeraren analisia

Hausnarketa egiteko SELFIE txostena erabili da eta hona hemen emaitzak:

Galdetegiaren osatze-indizeak



Zuzendaritza-taldeko kideak



Irakasleak



Ikasleak

SELFIE 2022-2023, session 1

28 ira. 2022 - 18 urr. 2022



Arloen laburpena (Arlo 8 bakoitzeko batezbestekoa irakasleak eta ikasleak)





Orokorrean irakasleek, zuzendaritza taldeak baino pertzepzio hobea duela ikus daiteke arlo gehienetan. Hala ere, hiru taldeak nahiko bat datoz emaitzetan eta **gutxien baloratzen den atala “ebaluazio-jarduketak”** da.


Aipatu beharra dago **“Lidergoa” oso ondo baloratzen dela** irakasleen aldetik. Beste puntu indartsu bat **“Azpiegiturak”** da.

Ondorengo puntuetan atalez-atal aztertuko dira emaitzak:

Arloko emaitzak

A. Lidergoa

Atal honetako galderak dira ikasteko eta irakasteko teknologiak ikastetxean integratzeko prozesuan lidergoak duen rolari buruzkoak.



Lidergoa ondo baloratzen da oro har. Estrategia digitala ondo baloratzen den arren, puntu baxuena da atal honetan. Esan behar da bertan ere zuzendaritzaren eta irakasleen artean dagoela balorazio desberdintasun handiena.

B. Kolaborazioa eta sareak

Arlo honetan, neurriak azaltzen dira ikastetxeek kolaborazio- eta komunikazio-kulturaren alde egin dezaten, ikastetxe barruan zein kanpoan esperientziak partekatzeko eta era efektiboan ikasteko.

B1. Aurrerapenaren ebaluazioa



B2. Teknologiaren erabilerari buruzko eztabaida




B3. Elkarlana



Kasu honetan aurrerapenaren ebaluazioa puntu ahulena dela ikusten da. Elkarlanean aldiz dago pertzepzio desberdintasun handiena zuzendaritza eta irakasleen artean.

C. Azpiegitura eta ekipamenduak

Atal honetako galderak azpiegiturari buruzkoak dira. (Adib., gailu digitalak, aplikazio informatikoak, interneteko konexioa). Azpiegitura egokia, fidagarria eta segurua edukitzeak ahalbidetuko ditu irakasteko, ikasteko eta ebaluatzeko prozedura berritzaileak.



Azpiegitura eta ekipamenduak **oso ondo baloratzen dira** orokorrean. Hala ere **puntu beltza Interneterako sarbidean** dagoela argi dago, ikasle, irakasle eta zuzendaritzak baxuen hau baloratu dute.

Aipatzekoa da ere ikasleek besteen aldean ez dituztela gailuak hain ondo baloratzen.

D. Etengabeko prestakuntza profesionala

Arlo honetako galderetan aztertzen da zer neurritan sustatzen duen ikastetxeak maila guztietako langileen garapen profesional etengabea (GPE). GPEk lagundu dezake teknologia digitalak erabiliko dituzten ikasteko eta irakasteko eredu berriak garatzen eta integratzen, irakaskuntzan emaitza hobekiak lortzeko.

D1. EPP beharrak



D2. EPP-n parte hartzea



D3. Bizipenak partekatzea



Etengabeko prestakuntza profesionala ondo baloratzen da oro har eta irakasle eta zuzendaritzaren pertzepzioak oso antzekoak dira.


E. Pedagogia: laguntzak eta baliabideak

Arlo hau ikaskuntzarako teknologia digitalak erabiltzeko prestakuntzari dagokio, irakaskuntza- eta ikaskuntza-praktikak eguneratzeko eta berritzeko.


E1. Hezkuntzako online baliabideak



E2. Baliabide digitalak sortzea



E3. Ikaskuntzarako ingurune birtualak erabiltzea



E4. Hezkuntza-komunitatearekin komunikatzea



Arloan ezberdintasunak daude azpi-arloetan. Komunikatzea eta baliabideak ondo baloratzen dira. Aldiz IBBen erabilera ez da oso altua (irakasleen eta zuzendaritzaren pertzepzioaren arabera batez ere) eta baliabide digitalak sortzea ere ahulgune moduan azaltzen zaigu.

F. Pedagogia: ikasgelan aplikatzea

Atal honetako galderak ikasteko teknologien implementazioari lotuta daude, ikasteko eta irakasteko prozesuak eguneratzeko eta berritzeko.

F1. Ikasleen premietara egokitzea




F3. Sormena sustatzea



F4. Ikasleen inklusioa



F5. Ikasleen arteko elkarlana



F6. Diziplinarteko proiektuak



Kasu honetan, arloa orokorrean ahulgune moduan har dezakegu. Atal guztietan 3.5 edo nota baxuagoa dago. Ikasleek atala guztiak baloratu dituzte, irakasle eta eta zuzendaritzak baino gehiago eta atala gehienetan pertzepzio baxuena irakasleek izan dute.

G. Ebaluazio-jarduketak

Arlo hau dagokie progresiboki ebaluazio tradizioaletik jardunbide-multzo zabalago batera aldatzeko neurriei. Neurri-multzo horretan, teknologia bidezko ebaluazio-praktikak sar daitezke, ikaslearengan zentratutakoak, pertsonalizatuak eta benetakoak.

G1. Gaitasunen ebaluazioa



G3. Atzeraelikadura egokia



G5. Nork bere ikaskuntzari buruzko hausnarketa egitea




G6. Beste ikasle batzuei haien lanari buruzko iruzkinak egitea



Ikastetxeko ahulgune nagusia da. Zuzendaritzak du pertzepzio baxuena eta gero irakasle eta ikasleek (orden horretan). Lau azpiatalak indartu beharko direla ondorioztatzen da emaitzetatik.

H. Ikasleen konpetentzia digitalak

Arlo hau ikasleek teknologiak modu seguru, sortzaile eta kritikoan erabiltzeko behar dituzten trebetasun, ezagutza eta jarrerari lotuta dago.



Portaera seguru, arduratsu, informazioaren kalitatea eta besteen lana aitortzea ahulgune moduan azaltzen dira. Zuzendaritzak baloratzen du gutxien oro har. Ikasleek “komunikatzen ikastea” baloratzen dute gutxien.

AMIA

FAKTORE POSITIBOAK	BARNE-FAKTOREAK		FAKTORE NEGATIBOAK
	Indarguneak	Ahuleziak	
	<p>A Lidergoa</p> <ul style="list-style-type: none"> Irakaskuntza modalitate berriak ezagutu eta garatzen ditugu azken urteotan. Ikastetxeak estrategia digital sendoa du. <p>C Azpiegitura eta ekipamenduak</p> <ul style="list-style-type: none"> Azpiegitura eta laguntza teknikoek ondo funtzionatzen dute Datuen babesa kontuan hartzen da estrategia digitala diseinatzerako orduan. <p>D Etengabeko prestakuntza profesionala</p> <ul style="list-style-type: none"> Irakasleen ehuneko handi batek A2 maila akreditatu du aurten <p>E Pedagogia: laguntzak eta baliabideak</p> <ul style="list-style-type: none"> Baliabide digitalak sortu da eta irakasle eta ikasleen esku dago Moodle plataforma eta hodeiaren bitartez. Komunikazioa ondo baloratzen da. <p>Beste batzuk</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikastetxeak komunikazio erregularra eta ongi antolatua du familia eta tutoreekin. 	<p>B Kolaborazio eta sareak</p> <ul style="list-style-type: none"> Orokorrean aurrerapenaren ebaluazio formala ez da egiten Teknologiaren erabilerari buruzko eztabaida ez da ematen <p>D Etengabeko prestakuntza profesionala</p> <ul style="list-style-type: none"> Bizipenak partekatzearen falta sumatzen da. <p>E Pedagogia: laguntzak eta baliabideak</p> <ul style="list-style-type: none"> Hezkuntzako online baliabideak falta dira batzuetan. Moodle ez da nahikoa erabiltzen. <p>F Pedagogia: ikasgelan aplikatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikasleen premietara egokitzea eta sormena bultzatzea falta da. Ikasleen inklusioari begiratzea falta zaigu, baita elkarlana sustatzea. <p>G Ebaluazio-jarduketak</p> <ul style="list-style-type: none"> Konpetentzien ebaluazio egokia egiteko formakuntza eta baliabide digitalak falta ditugu. Autoebaluazioa eta berdinaren arteko ebaluazioa modu egokian egiteko prestakuntza falta da. <p>H Ikasleen konpetentzia digitalak</p> <ul style="list-style-type: none"> Portaera segurua eta arduratsua sustatzeko ekintza gutxi egiten dira, baita besteen lana aitortzeko baliabideak azaltzea. Informazioaren kalitatea egiaztatzeko baliabideak eta jakintza falta da. 	
	Aukerak	Mehatxuak	
<ul style="list-style-type: none"> Azpiegitura eta ekipamenduak Ikasleek sarbide ona dute Internetera etxeetan oro har. Didcompedu eta digitalizazio planen aukerak. 	<ul style="list-style-type: none"> Internetarako konexio ez oso fidagarria edo mantsoa Irakasleentzako denbora falta Konpetentzia digital nahikoa ez duten ikasleak Dozenteek urruneko irakaskuntzarako materiala prestatzeko astirik ez izatea. Irakasleek ikasleei erantzuteko astirik ez izatea. Tresna digitalek dituzten arriskuak 		
KANPO-FAKTOREAK			

Ondorioak

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

- Irakaskuntza modalitate berriak ezagutu eta garatuditugu azken urteotan eta horrek DigCompEdu markoari heltzeko helduleku sendoa ematen digu.
- Baliabide digitalak sortu da eta irakasle eta ikasleen esku dago Moodle plataforma eta hodeiaren bitartez, azpiegitura egokiak izateak sakontzeko aukera ematen digu.
- Ikastetxeak komunikazio erregularra eta ongi antolatua du familia eta tutoreekin eta horretan ikasleek konexio onak edukitzeak sakontzeko balioko digu.

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

- Orokorrean aurrerapenaren ebaluazio formala ez da egiten eta DigCompEdu marko egokia da horri aurre egiteko.
- Azpiegitura egokiak ditugunez portaera segurua eta arduratsua sustatzeko ekintzak sustatzea errazagoa izango da

Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

- Ikastetxeak estrategia digital sendoa du eta Irakasleen ehuneko handi batek A2 maila akreditatu du aurten. Horrek lagundu behar digu ikasleen gaitasun digitalean hobetzen eta tresna digitalek dituzten arriskueta prebenitzen laguntzen.
- Azpiegitura eta laguntza teknikoek ondo funtzionatzen dute eta haietan insistitu beharko dugu dagoen puntu-beltzean hobetzen saiatzeko: sare-konexio motel eta ez fidagarria.

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

- Orokorrean aurrerapenaren ebaluazio formala ez da egiten. Hori inplementatu behar dugu.
- Teknologiaren erabilerari buruzko eztabaida ez da ematen eta partekatze tokiak bilatu beharko dira.
- Moodle gehiago erabiltzeko estrategia diseinatu beharko da.
- Ikasleen premietara egokitzea, sormena bultzatzeko, inklusiboak izateko eta elkarlana sustatzea izan beharko dira strategiaren parte.
- Ebaluazioan sakondu beharko dugu: formakuntza, tresnak...
- Tarte formal eta informalak sustatu behar ditugu digitalizazioak dituen ertz guztiak jorratzeko.



3. Helburuak eta ekintzak

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua

Orain arteko estrategia digitalaren hezurdura definitzea eta aurrerakoa planifikatzea

Deskriptorea

Epea

LG 1.1 Ikaskuntza digitalerako teknologien ahalmena ondo markatzen da

2024/06/16

Adierazlea

Mota

Helburua

LG 1.1 A2 Proiektu digitala idatzi da.

Bai/ez

Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Batzorde digitala sortu	Mentorea Batzorde digitala Zuzendaritza	Zuzendaritza	2022/09/15	Egina
Plan digitala idatzi	Mentorea Batzorde digitala SELFIE	Mentorea	2023/05/19	Egina
Plan digitala klaustroan eta OOGan onartu	Klaustroa OOG Plan digitala	Zuzendaritza	2023/05/24	Detektatua
Plan digitala web orrian publikatu	Mentorea Plan digitala Wordpress web orria	Mentorea	2023/06/16	Detektatua
Plan digitala ebaluatu eta eguneratu	Mentorea Batzorde digitala SELFIE	Mentorea	2024/06/16	Detektatua

Helburua

Teknologiai eta interneten erabilera osasuntsuari begirako estrategia bat ezartzea eta gure komunitatea parte egitea

Deskriptorea

Epea

LG 1.4 Hezkuntza irekia gizartearekiko inplikazioaren alderdi bat da

2024/06/16

Adierazlea

Mota

Helburua

LG 1.1 A3 Ikastetxeak protokolo bat du, hezkuntza-komunitateari komunikaziorako bideak eta uneak ezartzen dizkiona honako gai hauei buruz: teknologiak eta Internet modu onargarrian erabiltzea, osasuna eta zibersegurtasuna, gaitasun digitala garatzea eta web-aplikazioak, softwarea eta hardwarea erabiltzea.

Bai/ez

Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikas-komunitatean digitalizazioa nola egingo den zehazten duen protokoloa idaztea	Mentorea Berrikuntza arduradunak	Mentorea	2024/06/16	Detektatua
Programazioetan teknologiaren ikuspegi osasuntsua txertatzea	Klaustroa Formazioa	Berrikuntza arduradunak	2025/06/16	Detektatua
Ikas-komunitatea osatzen duten pertsonen (ikasle, irakasle, familia, langile) digitalizazio-maila eta beharren diagnostikoa egitea	SELFIE Galdetegiak Zuzendaritza Batzorde-digitala	Zuzendaritza	2024/06/16	Detektatua
Ikas-komunitatea osatzen duten pertsonen (ikasle, irakasle, familia, langile) digitalizazioan zentratzen den OOG osatzea	Zuzendaritza Batzorde-digitala	Zuzendaritza	2023/12/16	Detektatua

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Ikasleek lortu beharreko gaitasun digitala bermatzeko, mailaz maila landu beharreko oinarriko ezaguerak planifikatzea.

Deskriptorea	Epea
II 2.3 Ikasleentzat rol berriak aurreikusten dira	2025/06/16

Adierazlea	Mota	Helburua
II 2.3 A2 Diziplinarteko proiektuak urteko programazioetan eta unitate didaktikoetan jasota daude	Ehunekotan	%100

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Gaitasun digitala mailaz maila eta proiektuz proiektu lantzeko plana egin.	Mentorea Batzorde digitala Berrikuntza arduradunak	Berrikuntza arduraduna Mentorea	2024/06/16	Detektatua
Programazioetan, planean jasotakoaren arabera konpetentzia digitala txertatu.	Klaustroa	Zuzendaritza	2025/06/16	Detektatua

Helburua

Ikasleen arteko elkarbizitza on bat lortzea, horretarako ziberbizikidetzan indarra eginez.

Deskriptorea

Epea

II 2.3 Ikasleentzat rol berriak aurreikusten dira

2025/06/16

Adierazlea

Mota

Helburua

II 2.3 A1 Ikasleen gaitasun digitalaren garapena bultzatzeko, berdin arteko tutoretza-neurriak eta laguntza teknologikoa hartu dira.

Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikasle arduradun digitalaren figura sortu (gela bakoitzeko).	Tutoreak Mentorea Berrikuntza ard. Ikasleak	Zuzendaritza Mentorea	2023/09/30	Detektatua
Arduradun digitalen batzordea osatu. Elkarbizitza zirkuluekin elkarlanean ziberbizikidetzak lantzeko.	Tutoreak Mentorea Berrikuntza ard. Ikasleak	Zuzendaritza Mentorea	2023/09/30	Detektatua

GP Garapen profesionala

Helburua

Irakasleen gaitasun digitala bermatzea eta helburu pedagogikoa hobetzeko baliatzea beti ere.

Deskriptorea

Epea

GP 1.3 EGPa lerrokaturik dago banakako eta antolaketako premiekin

2024/06/16

Adierazlea

Mota

Helburua

GP 1.3 A3 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzea, baliabide digitalak sortzeko eta irakaskuntza-prozesuan integratzeko, irakasle-taldeak antzemandako premien arabera.

Bai/ez

Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Klaustroa "Curriculum eta Digitalizazioa" ikastaroaren bidez A2 mailan gaitu	Curriculum eta Digitalizazioa Mentorea Berrikuntza arduraduna	Mentorea Berrikuntza arduraduna	2023/05/15	Bukatuta (%100)
Formakuntza plana diseinatu irakasleen eta ikastetxearen proiektura egokituz	Mentorea Zuzendaritza Berrikuntza arduradunak	Zuzendaritza	2023/10/30	Detektatua
Formakuntza plana aurrera eraman da	Klaustroa Hezkuntza sailaren formakuntza	Zuzendaritza	2024/06/16	Detektatua

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

Ebaluazio egokia egitea ahalbidetzen duen egokitzapenak martxan jartzea.

Deskriptorea

Epea

EJ 1.4 Inguruko informazio aberatsa, pertsonalizatua eta garrantziduna jasotzea bultzatzen da eta espero da

2024/06/16

Adierazlea	Mota	Helburua
EJ 1.4 A1 Ikastetxeak errubrika-banku bat sortu eta antolatu du.	Bai/ez	Bai
EJ 1.5 A1 Irakasleak errubrika-banku eta plugin bidez kompetentziak ebaluatzeko gai dira	Ehunekotan	%50

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
EHUren laguntzaz eta Hondarribiako Talaia BHIrekin elkarlanean moodle plugin bat egin eta martxan jartzea kompetentzien ebaluazioa errazteko	Mentorea EHU Informatika fakultatea Talaia BHI Moodle	Mentorea	2024/06/16	Hasita (%1-19)
Gaitasun digitala mailaz maila eta proiektuz proiektu lantzeko plana egin.	Mentorea Batzorde digitala Berrikuntza arduradunak	Mentorea	2024/06/16	Detektatua
Programazioetan, planean jasotakoaren arabera kompetentzia digitala txertatu.	Mentorea Batzorde digitala Berrikuntza arduradunak Klaustroa Moodle	Mentorea	2025/06/16	Detektatua
Formakuntza plana diseinatu irakasleen eta ikastetxearen proiektura egokituz	Mentorea Zuzendaritza Berrikuntza arduradunak	Zuzendaritza	2023/09/30	Detektatua
Formakuntza plana aurrera eraman	Klaustroa Hezkuntza sailaren formakuntza	Zuzendaritza	2024/06/16	Detektatua

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

Kurrikulumean oinarrituz, gure ikas-irakas prozesuan digitalizazio etiko eta arduratsu baten begirada txertatzea eta martxan jartzea ikasleen konpetentzia digitaleko irteera profila bermatuz

Deskriptorea	Epea
EC 2.6 Ikasleen gaitasun digitala curriculum osoan garatzen da	2025/06/16

Adierazlea	Mota	Helburua
EC 2.6 A1 Ikastetxearen curriculum-proiektuak irteera-profila, ikasleen gaitasun digitalaren garapenaren ibilbidea eta hezkuntza-maila bakoitzerako gaitasun digitala ebaluatzeko irizpideak jasotzen ditu.igitala curriculum osoan garatzen da	Bai/ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Gaitasun digitala mailaz maila eta proiektuz proiektu lantzeko plana egin.	Mentorea Batzarde digitala Berrikuntza arduradunak	Mentorea	2024/06/16	Detektatua
Programazioetan, planean jasotakoaren arabera konpetentzia digitala txertatu.	Mentorea Batzarde digitala Berrikuntza arduradunak Klaustroa Moodle	Ikasketa-burua	2025/06/16	Detektatua

EN Elkarlana eta networkinga

Helburua

Ikastetxeak barne dokumentazioa sarean antolatzea, plataforma, egitura eta arduradun egokiak aukeratuz, edukiak partekatzeko eta lankidetzan jarduteko

Deskriptorea	Epea
EN 1.5 Barne-lankidetzaren eta ezagutzaren trukaketa espero da	2024/06/16

Adierazlea	Mota	Helburua
EN 1.5 A1 Ikastetxean teknologia digitalen erabilerari buruzko informazioa eta hausnarketa trukatzeko hainbat tresna eta une sortu dira.	Bai/ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Sistema bera erabiltzen duen beste erakunde baten laguntzaz gure hodeiaren antolaketa, egitura eta funtzionamendurako politikak ezartzea	Mentorea Zuzendaritza Lasarteko EAGI	Zuzendaritza	2023/09/30	Hasita (%1-19)
Moodlen eremura lan egiteko ikastaroak ezarri eta hauen antolaketa, egitura eta funtzionamendurako politikak ezartzea	Klaustroa Hezkuntza sailaren formakuntza	Berrikuntza arduraduna	2024/06/16	Prozesuan (%20-39)
Sailarekin komunikazio aktiboa ezarri datuen tratamenduaren eta digitalizazioan erabakiak modu egokian hartzeko	Mentorea Hezkuntza-saila Hezkuntza sailaren aholkularitza juridikoa	Zuzendaritza Mentorea	2024/06/16	Detektatua

AZ Azpiegiturak

Helburua

Eskolako hornidura teknologikoa egonkortu eta IKTko sailaren eginkizunak, ardurak eta bere egitura planifikatzea.

Deskriptorea

Epea

AZ 2.10 Plan eragile bat dago ezarrita sare nagusirako eta IKTetako oinarrizko zerbitzuetarako

2024/06/16

Adierazlea	Mota	Helburua
AZ 2.10 A1 Ikastetxeak dokumentu bat du ikastetxeko espazioak, ekipamendua eta baliabide digitalak kudeatzeko eta mantentzeko gida baten barruan. Bertan, ikastetxean erabiltzeko baliabide teknologikoak definitzen dira (plataformak, web aplikazioak, hardwarea eta softwarea), eta horiei buruzko informazioa harrera-dokumentuetan, ikastetxeko gidan eta ikastetxeko webgunean lortu daitezke.	Bai/ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
IKT gida egokitu eta eguneratu	Mentorea Batzerde digitala Dig. arduraduna Zuzendaritza	Digitalizazio arduraduna	2023/09/15	Prozesuan (%80)
IKT gida web orrian publikatu	Mentorea Batzerde digitala Dig. arduraduna	Digitalizazio arduraduna	2023/09/30	Detektatua
IKT baliabideen mantenua eta antolaketarako plana idatzi	Mentorea Batzerde digitala Dig. arduraduna	Digitalizazio arduraduna	2024/06/16	Detektatua
IKT baliabideen mantenua eta antolaketarako plana aurrera eramana	Mentorea Batzerde digitala Dig. arduraduna	Digitalizazio arduraduna	2025/06/16	Detektatua
FOG zerbitzari bat jarri instalazioak errazteko	Ordenagailu zaharra FOG programa	Mentorea	2023/09/16	Detektatua

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

Digitalizazio etiko, arduratsu eta euskaldun bat bermatzeko software librean oinarritutako digitalizazioan sakontzea

Deskriptorea

Epea

IB1.1 Plan eragile bat dago ezarrita software askea erabiltzeko

2025/06/16

Adierazlea

Mota

Helburua

EB 1.1 A1 Ikastetxean teknologia digitalen erabilerari buruzko informazioa eta hausnarketa trukatzeko hainbat tresna eta une sortu dira.

Bai/ez

Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Gailu guztietan Luberri Linux banaketa instalatzea	Dig. Arduraduna Luberri Linux	Digitalizazio arduraduna	2023/10/1	Prozesuan (%75)
DBH1eko ikasleei hodeiko erabiltzailea sortzea	Dig. Arduraduna Mentorea	Digitalizazio arduraduna	2023/09/30	Detektatua
Sistema bera erabiltzen duen beste erakunde baten laguntzaz gure hodeiaren antolaketa, egitura eta funtzionamendurako politikak ezartzea	Mentorea Zuzendaritza Lasarteko EAGI	Zuzendaritza	2023/09/30	Hasita (%1-19)



4. Proiektuaren ebaluazioa

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamena
LG	Orain arteko estrategia digitalaren definitzea eta planifikatzea eta aurrerakoa	2023-2024 ikasturte bukaeran	Batzorde digitala osatu da?	Zuzendaritza		
		2023-2024 ikasturte bukaeran	Plan digitala idatzi da?	Zuzendaritza		
		2023/05/24	Plan digitala klaustroan eta OOGan onartu	OOG Klaustroa		
		2023-2024 ikasturte bukaeran	Plan digitala web orrian publikatu da?	Mentorea		
		Ikasturtean zehar eta ikasturte amaieran	Zehaztutako helburuak eta ekintzak taula honetan adierazi bezela ebaluatuko dira.	Ikas-komunitatea		
LG	Teknologiari eta interneten erabilera osasuntsuari begirako estrategia bat ezartzea eta gure komunitatea parte egitea	2023-2024 ikasturte bukaeran	Protokoloa idatzi da? Protokoloaren egokitasuna neurtzeko galdetegia ikas-komunitateari	Ikas-komunitatea		
		2025-2026 ikasturte hasieran	Programazioetan konpetentzia digital osasuntsua txertatu da	Zuzendaritza		
		2024/06/16	Ikas-komunitatearen diagnostikoa egin da.	Zuzendaritza		
		2023/12/16	OOGko taldea sortu da	Zuzendaritza		
II	Ikasleek lortu beharreko gaitasun digitala bermatzeko, mailaz maila landu beharreko oinarriko ezaguerak planifikatzea.	2024/06/16	Plana idatzi da?	Mentorea Berrikuntza arduraduna		
		2025/06/16	Programazioetan txertatu da? Checklista bete	Mentorea Berrikuntza arduraduna		
II	Ikasleen arteko elkarbizitza on bat lortzea, horretarako ziberbizikidetzan indarra	2023/09/30	Arduradun digitalen figura sortu da?	Mentorea		

	eginez.					
GP	Irakasleen gaitasun digitala bermatzea eta helburu pedagogikoa hobetzeko baliatzea beti ere.	2023/09/30	Arduradun digitalen batzordea osatu da? Maiztasun batekin biltzen da?	Mentorea		
EJ	Ebaluazio egokia egitea ahalbidetzen duen egokitzapenak martxan jartzea.	2024/06/16	Lortu dugu karrera amaierako proiektua ateratzea? Proiektuak emaitza eman du? Proiektua eskolako moodlean inplantatu da?	Mentorea		
		2024/06/16	Plana egin da eta egokia da? Galdetegia osatu	Klaustroa		
		2025/10/01	Plana programazioetan txertatu da?	Ikasketa-burutza Berrikuntza arduraduna		
		2023/09/30	Formakuntza plana sortu da.	Zuzendaritza		
		2024/06/16	Formakuntza plana egin da eta egokia izan da? Galdetegia egokitasuna neurtzeko			
EC	Kurrikulumean oinarrituz, gure ikas-irakas prozesuan digitalizazio etiko eta arduratsu baten begirada txertatzea eta martxan jartzea ikasleen konpetentzia digitaleko irteera profila bermatuz	2024/06/16	Plana egin da eta egokia da? Galdetegia osatu	Klaustroa		Klaustroa
		2025/10/01	Plana programazioetan txertatu da?	Ikasketa-burutza Berrikuntza arduraduna		
EN	Ikastetxeak barne dokumentazioa sarean antolatzea, plataforma, egitura eta arduradun egokiak aukeratuz, edukiak partekatzeko eta lankidetzan jarduteko	2023/09/30	Bilera egin a EAGIrekin? Ideiak inplantatu dira	Zuzendaritza Mentorea		
		2024/06/16	Moodleko ikastaroak osatu dira?	Berrikuntza arduraduna		
		2024/06/16	Sailarekin hobetu da komunikazioa? Barne-hausnarketa	Zuzendaritza Mentorea		
AZ	Eskolako hornidura teknologikoa egonkortu eta IKTko sailaren eginkizunak, ardurak eta bere egitura planifikatzea.	2023/09/15	IKT gida egokitu eta eguneratu da? Baliagarria den jakiteko galdetegia.	Digitalizazio arduraduna		
		2023/09/30	IKT gida publikatu da?	Digitalizazio arduraduna		
		2024/06/16	IKT baliabideen mantenua eta antolaketarako plana idatzi da?	Digitalizazio arduraduna		

		2025/06/16	IKT baliabideen mantenua eta antolaketarako plana aurrera eraman da planean ezartzen diren mugarren arabera.	Zuzendaritza Mentorea Digitalizazio arduraduna		
		2023/09/16	FOG zerbitzari bat jarri da instalazioak errazteko?	Mentorea Digitalizazio arduraduna		
IB	Digitalizazio etiko, arduratsu eta euskaldun bat bermatzeko software librean oinarritutako digitalizazioan sakontzea	2023/10/30	Gaiku guztietan Luberri Linux dago?	Digitalizazio arduraduna		
		2023/09/30	Hodeiko erabiltzailea sortu zaie DBH1eko ikasleei?	Digitalizazio arduraduna		
		2023/09/30	Bilera egin a EAGIrekin? Ideiak inplantatu dira?	Mentorea Zuzendaria		